



Kanariar uhartekoak, Galiziakoak, Kataluniakoak, eta Euskal Herriko sindikatu nazionalistek hurrengo apirilaren 5ean manifestazioa egingo dute Madrilen gizarte eta lanerako egindako erreformen kontra eta euren jarduketa-eremuan gizarte eta lanerako baldintzak "erabakitze eskubidearen" alde.

APIRILAREN 5EAN, MADRILEN ENTZUNGO DUTE GURE AHOTSA

Euskal gehiengo sindikalak, –ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU- hainbat alditan Euskal Herrian langileak pairatzen ari diren eraso larriak salatu ditu. Greba orokorrak, informazio, sentisibilizazio eta mobilizazio-kanpainak, geldialdiak eta konzentrazioak ere egin ditu. Hots, mendeetan zehar borrokaren bitartez lortutako eskubideak, gobernuei eta patronalei hain erraz ez dizkiela kentzen utziko argi esan du.

Orain urrats bat gehiago ematea erabaki du. Astearten, apirilaren 5ean, euskal gehiengo sindikalak, Galiziako, Kataluniako eta Kanariar Uharteetako sindikatuak ondoan izanda, bere protesta Madrileran eramango du. Lehenengo orduan prentsa-deia aurreikusita dago, Euskal Herrian hainbesteetan entzun duguna azaltzeko: onartutako erreformek – edo onartzeko bidean daudenek – ekonomia, finantza eta enpresa-boterearen interesak baino ez dituztela betetzen. Azken hamarkadetan langileen kontrako erasorik bortizenak direla, azken finean, eta baita bititza eta lan-baldintzen kontrakoak ere.

Manifestazioak, Madrileko erdigunea zeharkatuko duena, Santiago Bernabeu estadioaren ondoan hasiko da goizeko 12etan, eta Lan-Ministerioan bukatuko du. Hurrengoan, ekintza-sindikala egongo da, eta ELA, LAB eta CIGeko lider nagusiak izango dute hitza.

Manifestazioaren lema **Gure gizarte eta lan baldintzak erabakitze eskubidearen alde. Pentsioen eta negoziazio kolektiboaren erreformei ez** izango da. Gure eskubideen kontrako eraso larriak diren bi erreforma dugu. Bata, pentsioena, historia osoan egindako murrizketarik larriena ekarriko du. Bestalde, hurrengo asteetan negoziazio kolektiboaren erreforma ere adostuko dute, eta nahiz eta sekretismo handia egon, emandako informazioak ikusita ezin da ezer onik espero.

Gainera, Euskal gehiengo sindikalak Madrilen gizarte eta lan arloan arau-ahalmena aldarrikatuko du, gizarte-babesa eta lan harremanetarako sistema erabakitze eskubidea bermatzen duena eta baita Euskal Herriko negoziazio kolektiboaren eredu ere.